BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

794

AGINDUA, 2013ko urtarrilaren 23koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena. Honen bidez, argitara ematen da, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2012ko otsailaren 1eko Aginduan ezarritako laguntzen 2012ko erakunde onuradunen zerrenda. Agindu horren bitartez, Behatoki Estrategiko Sektorialentzako laguntzak arautzen dira.

Diru-laguntza publikoak emateko, ezinbestean bete behar da publikotasun-printzipioa. Hori dela-eta, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2012ko otsailaren 1eko Aginduan xedatutako laguntzen onuradunei banan-banan jakinarazi ondoren, onuradunen zerrenda Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen da, agindu honen bitartez (2012ko otsailaren 1eko Aginduaren bidez, Behatoki Estrategiko Sektorialentzako laguntzak arautzen dira).

Hori horrela, aurreko paragrafoan adierazitakoarekin bat etorriz, hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2012ko otsailaren 1eko Aginduaren bidez ezarritako laguntzen 2012ko onuradunen zerrenda argitaratzea (zerrenda agindu honen eranskinean ageri da), betiere Behatoki Estrategiko Sektorialentzako laguntzak arautzen dituen agindu horren 13. artikuluaren seigarren paragrafoaren arabera, eta Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen irailaren 22ko 514/2009 Dekretuaren lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko urtarrilaren 23a.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.

ERANSKINA

Entitate onuraduna	Diru-kopurua
Agrupación Cluster de Electrodomésticos de Euskadi, A.I.E. «ACEDE»	48.000 €
Asociación ACICAE Cluster de Automoción de Euskadi	37.500 €
Asociación Cluster de Industrias de Medio Ambiente de Euskadi «ACLIMA»	37.500 €
Asociación Española de Fabricantes de Máquinas Herramienta, Accesorios, Componentes y Herramienta «AFM»	48.000 €
Asociación Cluster del Sector Audiovisual de Euskadi-Euskadiko Ikustentzunezko Klusterra «EIKEN»	15.000 €
Asociación Cluster de Energía	48.000 €
Asociación para la Promoción de la Industria Marítima Vasca «Foro Marítimo Vasco»	48.000 €
Asociación de Industrias de las Tecnologías Electrónicas y de la Información del País Vasco –GAIA– Euskal Herriko Elektronika eta Informazio Teknologien Industrien Elkartea	48.000 €
Asociación Cluster de Aeronáutica y Espacio del País Vasco «HEGAN»	48.000 €
Asociación Cluster de Alimentación de Euskadi	23.972 €
Asociación Española de Fabricantes de Herramientas de Mano «Herramex»	15.000 €
Guztira	416.972 €